

Denbora-pasa baina gehiago

Dardo jokoan aritzen dira hainbat ibartar ▶ 6



PPk Hernialde, Irura eta Leaburun duen jarrera salatu du Foru Aldundiak

GESTORAK ▶ Gestorak sortzeko ahalmena Hauteskunde Batzorde Zentralaren eskuetan utzi du PPk

OSATU GABE ▶ Hiru udalak ez zirenez osatu, funtziotan jarraitzen dute aurreko legealdikoek ▶ 4

TOLOSA ▶

Mailaz igotzea du helburu Laskorainek

Denboraldi berrirako aldaketa batzuk egin dituzte ▶ 2

TOLOSA ▶

Opera gaua eskainiko du etzi Orfeoia Leidorren

'Galtzaundi' obra estreinatuko du bertsi berrian ▶ 3

VILLABONA ▶

Pagadi eta Iraolaren umorea Gurean ▶ 4

UGARTE ▶

Bihartik igandera, Errosario jaiak ▶ 5



Ikastaro eskaintza oparoa kiroldegian

LEITZA ▶ Kiroldegiak ikasturte honetarako kirol eskaintza oparoa eskaintzen du, urtero bezala. Aerobika, karatea, mantentze gimnastika, step-a, yoga, multikirola eta gimnastika dira aukernan dauden kirolak, heldu eta gazteentzat. Orduetegi aldetik ere aukera zabala dago, parte-hartzaileen eskakizunei jarraiki. Izena ematen daiteke eta taldeak osatzeko gutxienez hamar lagun beharko dira. Ikastaroetako prezioak ere eman dituzte eta bazkideek erdia ordainduko dute. JAIONE ASTIBIA ▶ 7



ZURICH ASEGURUAK

MIGUEL LARRARTE PÉREZ

Tituladun Aseguru Artekaria

ETXEA • ISTRIPUAK • DENDAK • AUTOAK • BIZITZA
INBERTSIOAK • OSASUNA • PYMES • ...

Tel.: 943 650546 • faxa: 943 655649 • mug. 655 724 978

Bulegoak: Gernikako arbola, 4 • 20400 **TOLOSA** • m.larrarte@euskaltel.net

ARETO FUTBOLA ▶

MADDI SOROA

Denboraldi berriari begira, al daketak izan ditu Laskorain areto futbol taldeak. Batetik, bost jokalarik baja eman dute, hala nola, Xabi Bengoetxea —itxiera, orain bigarren entrenatzailea dena—, Lasa—hegalean—, Iker Calixto —hegalean—, Unai Igartua, eta Mikel Sanz —atezaina—, eta bigarren entrenatzaile modura zebilen Xabi Lasak ere taldea utzi du. Bestetik, ordea, bost jokalarik berri etorri dira taldera: Gorka Amatriain, urtebete kanpoan igaro ondoren berriaz bueltatu dena, Joseba Gil, Iñigo Murgi eta Ekhi Zubillaga bigarren taldetik Lehen A Mailara igo direnak eta azkenik Jon Arregi, atezain gisa.

Iñaki Egizabal entrenatzailearen ustetan, aldaketa hauen ondorioa «epe luzera positiboa da, epe motzean, ordea, okerragoa; batetik, taldea gaztetzen baita horrela, baina bestetik, jokalariek berriak ohitu egin behar dute mailara. Beraz, kalitate ez da hain ona, esperientzia gehiago izanik jokalariek berteranoek errendimendu handiagoa ematen baitzuten».

Lehen B kategorian orokorrean dagoen mailari dagokionez, berriz, «azken bost urteotan maila progresiboki igozten ari dela uste dut», adierazi du Iñaki Egizabal, Laskorain areto futbolleko entrenatzaileak, eta «lehenengo urtez jokatu genuenean, ez zegoen orain dagoen bezalako maila altua», gaineratu du.

Denboraldi berriari zer?

Laskorain areto futbol taldeak, bost denboraldi daramatza Lehen B Mailan. Iaz 16 talde ziren guztira, eta Laskorain taldea bosgarren postuan geratu zen. Denboraldi berriari begi-

Mailaz igotzea du helburu Laskorain areto futbol taldeak

Lehen A mailara igotzeko, Ligako lehenengo postua lortu beharko du; aldaketa batzuk izan dira horitxo plantilan



Laskorain areto futbol taldeko jokalariek eta entrenatzaileak atzo Berazubiko kiroldegian. IRATXE ETXEBESTE

ra, helburu finkoa du «beste urtetan talde lehiakorra izan gara, baina aurten irabazle izaten saiatuko gara», adierazi du Egizabalek. Horixe izango da orduan, taldeak duen asmo nagusia denboraldi berrirako, ligako lehenengo postuan geratzea, horrela, Lehen A Mailara igotzeko.

Lehen B Mailako lehenengo postuan geratzen den taldea, Lehen A Mailara pasatzen da,

horregatik, «lehenengo postua lortzen duenak soilik lortzen du saria, Lehen A Mailara igotzea, eta hori da Lehen B Mailan jokatzeko duen alderik txarrena da. Hori lortzea nahiko zaila da», uste du Egizabalek.

Hala ere, hori lortzeko lanean jardungo dutela ere adierazi du «joku kalitatean aurrerapausuak eman behar ditugu, izan ere, talde on asko daude,

baina taktikoki ez dira hain onak». Beraz, joku kalitatea edota estrategia bezalako eremuak landuko dituzte aurtengo denboraldian.

Aipatu asmoak betetzeko gain, «Laskorain taldea garen neurrian, euskara kirolera zabaltzen jarraituko dugu», adierazi du Egizabalek. Bestalde, Laskorain ikastola eskertu nahi izan du, «berari esker iritsi baikara gauden tokira».

Berdinketa lortu dute lehen partiduan, Txurdinagan

Hirunako berdinketarekin eman zion hasiera areto futbolleko Laskorainek ilusioz beteriko denboraldi berriari. Bilboko Txurdinaga polikiroldegian jokaturako norgegiagokan tolosarrek Ituriondo talde gogorra izan zuten aurkarik, garai bateko Indautxu, eta gogotik egin behar izan zuten lan puntu bat poltsikoratzeko.

Partida, edozein txapelketatan estraineiko jardunaldian ikusi ohi den horietakoa suertatu zen; porrotaren beldur edo izuagatik errespeto handiegiz jokatzeko den horietakoa alegia eta batera dizdirarik gabekoa, aurrendenboraldiko entrenamenduekin liseriketa osatu eta lehenbailehen lehia-

keta erritmoa hartu nahi duten bi taldeen artean erabat lojiko den moduan.

Txurdinagako ohol elegantearen gainean berdintasuna izan zen nagusi. Egia da bizkaitarrek erasoan erabiliko 4-0 sistemak buruko min handiak sortu zituela laskoraindarraren artean lehen minutuetan, baina horitxoek asmatu zuten bere defentsa doitzen eta Saldias kapitainaren azeri gol bati eskerrak markagailuan aurre hartzea ere lortu zuten.

Ondoren ordea, bizkaitarrek berreskuratu zuten iniatiba eta errazegi eman zioten markagailuari buelta 2 eta 1 laskoraindarren etsipenerako. Eskerrak Barriola puxika margo-

lariak atsedenerako minutu erdi baten faltan bere artista gol horietako bat sartu zuen binako berdinketa ipiniaz.

Bigarren zatian ez zen ezertxo ere aldatu. Jokoan berdintasunak, markagailuan zalan-tzak, berean irauten zuten minutuak aurrera joan ahala, eta amaierarako sei minuturen faltan bizkaitarrek egin zuten 3 eta 2koa. Baina horitxoek ez zuten etsi, eta 10 dortsala estrenatzen zuen Altunak. Usabalgo perla ilehoriak, bere zeren gol horietako bat sinatu zuen, ikusgarria zaletuentzat, zirraragarria taldekideentzat.

Saldiasen azeri, Barriolaren artista eta Altunaren zeren gotletaz gain, beste bi izen ere

ezin dira ahanzi: Domentxe atezainak partida borobila burutu baitzuen eta Amatriainek klubak bere fitxaketarekin bete bete asmatu duela frogatu baitzuen. Ia datorren larunbatean Laskorainek Mungia mendean hartzen duen Berazubiko, horrekin hiru puntu berri lortzeaz gain Txurdinagako berdinketari ere balio gehigarri bat emango bailioke. Bilboko Txurdinaga auzoan Laskorain ikastolaren koloreak Egizabal entrenatzaileak eta Domentxe, Telletxea, Yustos, Saldias, Barriola —hasierako bostekoa—, Alonso, Beldarrain, Amatriain, Gil, Altuna eta Arregi jokalariek defendatu zituzten. ◀

PLANTILA ▶

Hau da taldearen plantila denboraldi berrirako.

ATEZAINAK

Unai Domentxe. 27 urte, 2. denboraldia.
Jon Arregi. 20 urte, 1. denboraldia.

ITXIERAN

Iker Telletxea. 30 urte, 6. denboraldia.
Eneko Yustos. 23 urte, 2. denboraldia.
Xabier Pagola. 30 urte, 6. denboraldia.

HEGALEAN

Gorka Amatriain. 23 urte, 2. denboraldia.
Jorge Alonso. 25 urte, 5. denboraldia.
Andoni Saldias. Kapitaina, 29 urte 12. denboraldia.
Unai Barriola. 20 urte, 2. denboraldia.
Joseba Gil. 20 urte, 1. denboraldia.

PIBOTEAK

Mikel Altuna. 24 urte, 5. denboraldia.
Javier Beldarrain. 29 urte, 6. denboraldia.
Iñigo Murgi. 18 urte, 1. denboraldia.
Ekhi Zubillaga. 18 urte, 1. denboraldia.

ENTRENATZAILEAK

Iñaki Egizabal. 27 urte, 2. denboraldia.
Xabier Bengoetxea. 31 urte, 1. denboraldia.

DELEGATUA

Javier Saldias. 42 urte, 6. denboraldia.

ALDAKETAK

Joandakoak. Xabi Bengoetxea, Xabi Lasa, Iker Calixto, Unai Igartua eta Mikel Sanz.
Etorri berriak. Gorka Amatriain, Joseba Gil, Iñigo Murgi, Ekhi Zubillaga Jon eta Arregi.

IÑAKI EGIZABAL
ENTRENATZAILEA

«Beste asmoez gain, Laskorain taldea garen neurrian, euskara kirolera zabaltzen jarraituko dugu»

KULTURA ▶

Opera gaua, Leidorren

Tolosako Orfeoia emanaldi berezia eskainiko du etzi, 21:00etatik aurrera

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Orfeoia Opera gaua eskainiko du etzi, 21:00etatik aurrera, Leidor aretoan. Opera hainbat obraren zati hautatuta osatu dute antolatzaileek egitaraua, eta Sabina Puertola-sek eta Jon Plazaolak —sopranoa eta tenorea, hurrenez hurren— interpretatutako ariekin uztartuko dituzte obra horiek guztiak. Ramos Azkarate Otegi poeta zenaren heriotzaren mendeurrena ospatzeko, gainera, *Galtzaundi* obra estreinatuko du Tolosako Orfeoia, Juan Jose Ocon maisuak orkestrarako moldatutako bertsiotan. Horretarako, Iruñeko Concerto orkestraren laguntza izango du Tolosako Orfeoia etzi taula gainean, Pedro Palacin maisuaren zuzendaritzapean. Berak eta Ignacio Ruiz de Alegria, Tolosako Orfeoiko zuzendariak osatuko dute koruko kideen taldea.

Tolosako Orfeoia lan handia ari da egiten 1998ko irailean sortu zenetik. Ignacio Ruiz Alegriaren gidaritzapean, hamai-ka emanaldi eskaini ditu urteotan, bai Tolosan bai kanpoan. Mezarako obrak, Gabonetako piezak, hango eta hemengo musikarien omenaldietarako aukeratutako lanak... Askotarik-ko interpretazioak egin dituzte Orfeoiko abeslariak, eta emanaldi horietako batzuk urtez urte errepikatzea lortu dute. Ohiko bilakatu da, esaterako, Tolosako Orfeoia urtero Leidorren eskaintzen duen Gabonetako kontzertua; Iruñeko Concerto orkestraren laguntza izan du saio horietan maiz.



Tolosako Orfeoia eskainiko du Opera gaua, etzi, Leidorren. J. SAIZAR

OPERA GAUA ▶

1. ZATIA

'*Il rapto d'il serralo, Obertura*'. Mozart, orkestrak. '*Amailerako korua, Il rapto d'il serralo*'. Mozart, koruak. '*Una voce poco fa, El Barbero de Sevilla*'. Rossini, sopranoak. '*Amailerako korua, La flauta magica*'. Mozart, koruak. '*Do Caro elisir sei mio, L'elisir d'amore*'. Donizetti, sopranoak eta tenoreak. '*Va pensiero, Nabucco*'. Verdi, koruak.

2. ZATIA

'*L'italiana in Algeri, Obertura*'. Rossini, orkestrak. '*In quelli anni, Le nozze di Figaro*'. Mozart, tenoreak. '*Coro di zingari, Il trovatore*'. Verdi, koruak. '*Tornami a dir que m'ami, Don Pasquale*'. G. Donizetti, sopranoak eta tenoreak eskainiko dute. '*Coro di zingarelle a di mattadori spagnoli, La Traviata*'. G. Verdi, koruak eskainiko du.

ESTREINALDIA

'Galtzaundi' obra estreinatuko du etzi Tolosako Orfeoia Ocon maisuak orkestrarako moldatutako bertsiotan

AGENDA ▶

Tolosako Orfeoia honako emanaldiak eskainiko ditu datozen hilabeteetan:

Hilaren 30ean. Mokoroari omenaldia egiteko, Ordiziako parroki elizan jardungo du. **Abenduaren 17an.** Belenzaleen Elkartearen kontzertua Kursaal. **Abenduaren 23an.** Urteroko Gabonetako kontzertua, Tolosako Leidor aretoan.

Aparteko emanaldia eskainiko du Orfeoia larunbatean. Bi zatitan banatu nahi izan dute bertako kideek Opera gaueko saioa, eta guztira hamabi obra eskainiko dituzte. Musikari handien lanak izango dira guztiak, propio emanaldi horretarako hautatutakoak.

Sarrerak, Kultur Etxean

Larunbateko Opera gauerako txartelak salgai dira honezkeroko Antonio Maria Labaien kultur etxean. 12 eurotan eskuratu ahal izango dituzte herritarrek sarrerak, eta alde zaurretik agortzen ez badira, etzi gauean leihatilan bertan ere jarriko dituzte salgai.

MUSIKA ▶

Tolosako eta Anoetako taldeak Bonberenean

Bonberenean ekin dio ikasurte berriari kontzertuak eskaintzeari, eta biharko emanaldi berezia prestatu dute bertako kideek. 22:30etik aurrera Tolosako Maren (Uncle mussles taldeko abeslaria eta Juantxo Zeberio) eta Anoetako Jone (bakarlaria) taldeak izango dira Bonberenean kaulan.

KULTURA ▶

'Ibilbide 181.a' dokumentala Kultur Etxean

Palestinaren Lagunen elkar-teak *Ibilbide 181.a* dokumentala eskainiko du gaur eta bihar, 19:30etik aurrera, Kultur Etxean. Israelarren eta palestinarren testigantzak biltzen ditu Eyal Sivaw, zine zuzendari israeldarren eta Michel Khleifi zinemagile palestinarren filmak.

HEZKUNTZA ▶

Samaniegoko gurasoen bilera, Kultur Etxean

Samaniego ikastetxeko ikasleen gurasoak gaur bilduko dira, Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara, eguerdiko ikastetxeko garraioari buruz aritzeko. Ikastetxeko gurasoek esan dute bilera hasita badago ere bertara joan daitezkeela Samaniegoko gurasoak, iluntzeko zortziak bitartean.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Alegia. Etxebizitza berriak 2 eta 3 logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.
Alto. Etxebizitza ugari alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.
Andoain. 90 m²-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio: 669 87 19 09.
Berrobi. Hiru logelako etxebizitza salgai, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailuarekin. 22.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Cintruenigo (Nafarroa). Hiru logelako

etxebizitza salgai; bi solairuko, altzariz guztiz hornitua, bokoa, erretegia, piszina, sukaldea eta bainugela dauzka. Kanpokaldera begira. 18.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Corella. Etxe abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Portxearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukaldez hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m²-ko terrenoarekin. Piszina eta guzti. Eta gainera, batzuk bimeneta dotorea. 13.500.000 pezeta. Mandio 669 87 19 09.
Hendaia. Etxebizitza abikiak lorategia eta guzti. 44.000.000 pta. 669 87 19 09.
Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 31.500.000 pta. Mandio 669 87 19 09.
Ibarra. Etxebizitza berria, Zaldunen. Bi logelako etxebizitza salgai; altzariez

hornitutako sukaldea, kanpokaldera begira, trastelekuarekin eta igogailuarekin. Informa zaitetzeh dohainik. Mandio. 669 87 19 09.
Ibarra. Maestro Guridin, etxebizitza salgai; 3 logelakoa, kanpokaldera begira, altua, bista, igogailua eta terrazarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Ibarra. Argindegi auzoan, 3 logelako etxebizitza, berogailuarekin eta atzariz guztiz hornitua. 27.500.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Legorreta. Etxebizitza salgai, 3 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin.
Lursaila. 10.000 m²-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Mandio. 669 87 19 09.
Ordizia. Urdaneta kalean 67 m²-ko etxebizitza, 2 logela, egongela handia, bainugela eta igogailuarekin.
Tolosa. Korreo kalean 70 m²-ko duplexa

salgai. 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berria, berogailuarekin. 26.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai: 4 logela, egongela handia 25 m²koa eta igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Araba etorbidean 97 m²-ko etxebizitza salgai; bizitzera sartzeko prest dago, balkoi handia du eta baita garaje marra ere. Informa zaitetzeh. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Hiru solairuko baserria salgai, 500 m²-koa bakoitza, nekazaritzarako 10.000 m²-ko lursailak ditu. 669 87 19 09.
Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Larramendi kalean 65 m²-ko

etxebizitza, sukaldea altzariez hornitua, kanpokaldera begira, 2 logela, igogailua eta trasteleku. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Etxebizitza berritzeko, 19.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Txarama. 100 m²-ko etxebizitza salgai; hiru logela eta altzariz hornitutako sukaldea. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.
LOKALAK
Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. 428 m²-ko pabilioi berria salgai, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihebidia ondoan. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Lokalak salgai Laskorain kalean, Rondilla kalean, Trianguloan eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

POLITIKA ▶

Udalen kasuan PPk duen jarrera salatu du Aldundiak

Irura, Hernialde eta Leaburuko alkatetzak funtziotan jarraitzen dute

IMANOL GARCIA

Foru Aldundiak bere haserrea agertu du Gipuzkoako bost udalerritan udala eraturik gabe dagoelako eta Alderdi Popularretik «egun bat bai eta bestea ere bai» egoeraren ardua egotzen diotelako, Koldo Azkoitia bozeramaleak atzo egindako prentsaurrekoan adierazi zuenez. Bost udalerririk horietatik hiru Tolosaldekoak dira—Irura, Hernialde eta Leaburu— eta beste biak Itsasondo eta Aizarnazabal dira.

Hauteskundeen legea aldatu aurretik Foru Aldundiari zegokion udalbatza falta zen udalerrietan gestorak antolatzea. Baina orain, Alderdi Popularrak bultzatu eta sozialisten laguntzaz onartutako Alderdien Legeak eskumen hori Hauteskundek Batzorde Zentralaren eskuetan utzi du. Hori dela eta, aipatutako udalerrietan udalbatza osatzeko ardua Hautes-



Plataformek iaz prentsaurrekoa egin zuten egoera salatzen. D. GIBELALDE

kunde Batzorde Zentralak bakarrik hartu dezake.

Egoera honen aurrean Foru Aldunditik gutuna bidali zuen Joxe Joan Gonzalez de Txabarri ahaldu nagusiak Hauteskundek Batzorde Zentralari duela sei hilabete. Oraindik erantzunik ez dute jaso eta Foru Aldundia haserre dago denbora tarte honetan Alderdi Popula-

rretik erantzukizunak eskatu dizkiotela: «Gaur bai eta bihar ere bai, daukagu PP eguneroko galdetzen ea zer egin behar dugun udaletxe hauetan», adierazi zuen Koldo Azkoitiak. «Ezin dugu ezer egin beren arduragabekeriagatik. Bere egunean, funtzio gabe utzi zutelako Foru Aldundia eta gaur egun erreklamatzeko ari direla-

ko neurriak hartzea. Konsekuenteak izan daitezela eta erantzun dezatela behingoz bere egunean ahaldu nagusiak egindako galderari», erantsi zuen.

Eskualdeko hiru udalerritan aurreko legealdian aukeratuak izan zirenak alkatetza funtziotan betetzen ari dira. Neurririk hartzen ez bada hurrengo udal hauteskundeak arte egoera ez dela aldatuko uste dut Foru Aldundiak.

«Egoera jasangaitza»

Pasa den urteko urrian, prentsaurrekoa egin zuten bost herrietako plataformek eta egoera honi irtenbidea emateko eskatu zuten. «Herriarrentzat egoera jasangaitza» dela salatu zuten. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiari «herriaren borondatez osaturiko udalak bi deratu eta onartu ditzala» exijitu zioten.

IRURA ▶

Autodefentsa ikastarorako izena emateko aukera

Irurako Udalak antolatu duen autodefentsa ikastarorako izen emate epea irekia dago. Interesatuak urriaren 13a arte dute aukera. Ikastaro hasierako bilera udaletxean egingo da, urriaren 14ean, orduetgia zehazteko. Autodefentsa ikastaroa Irurako Ikastolako ekitaldi aretoan emango da.

ANOETA ▶

Yoga, dantza eta pilota ikastaroak martxan dira

Ikasturte berriari ekin zaio aste honetan Anoetako Udalak antolatzen dituen ikastaroei dagokionez. Yoga ikastaroa udal aretoan burutzen da, ordu eta erdiko klaseak eginez astean behin, eta Gabonak arte luzatuko da. Bestalde, udal dantza eta pilota eskolako klaseak ere hasi dira. Dantza ikastaroa, hiru urtetik gorakoentzat, udaletxean egiten da, eta pilota ikastaroa, bost urtetik gorakoentzat, frontoian.

VILLABONA ▶ KULTURA

‘Rechace imitaciones’ umore emanaldia ikusgai izango da bihar gauean Gurea aretoan

Pagadi billabonatarak eta Iraola ibartarrak sortutako ikuskizuna 22:30ean izango da

I. GARCIA

Euskal Herri guztitik ibili ondoren eta eskualdeko herri batzuetan emanaldia egin ondoren, Mikel Pagadizabal Pagadi villabonatarak jaioterrian *Rechace imitaciones* umore saioa aurkeztuko du. Bere ondoan

izango du Jon Iraola ibartarra jendeari barre algarak sortarazteko. Efectu tekniko arduak, berriz, Harkaitz Zendoiak izaten du. Hitzordua bihar izango da, Gurea aretoan, gaueko 22:30ean.

Orain dela urte batzuetako Inauterietan topatu ziren biak,

Pagadi Tonino Carotonez mozorrotuta eta Iraola Tamaraz. Orduan ikusi zuten bien arteko kimika bazegoela, baina aurreko urtea arte ez zuten jarri martxan umore saioa. Orain, Villabonan hamalagarren saioa burutuko dute. «Ilusioa egiten dit herritarren aurrean

saioa egitea», adierazi du Pagadik. Ikuslegoaren harrerarekin gustura daude umoregileak. Hala ere beren gorabeherak ere izan dituzte: «Amaiurren egin genuen saio batean kros proba baten helmugan egokitu zitzaigun antzestea», azaltzen du billabona-

tarrak. «Jendeak txalo egiten zion lasterkariei eta guk pentsatzen genuen guretzako zirela txalo horiek».

Telebistako pertsonaien imitazioak, bakarriketak eta esketak egiten dituzte telebistako pertsonaia ezagunen inguruan, ordu eta hoge minutu irauten duen ikuskizunean. Pagadik azaltzen digunez, «niri gehiago gustatzen zaizkit bakarriketak eta Iraolak imitazioak egiten iaioa da». Billabonatar guztiak gonbidatzen ditu Pagadik: «Edade guztietako ikuslegoa etortzen da».

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



ALEGIA ▶ MUSIKA

Txintxarri Eguneko bazkarirako txartelak

Txartelak eskuratzeko azken eguna urriaren 13a izango da; 30 euroko salneurria dute



Txintxarri abesbatza, iazko Txintxarri Eguneko emanaladian. HITZA

O. ESKITXABEL

Alegiako Txintxarri-Txiki eta Txintxarri abesbatzek emanaldi berezia eskainiko dute urriaren 24an, Txintxarri Eguna dela-eta. Kontzertua, 12:00etan izango da San Juan Bataiatzailearen elizan; ondoren, 14:30ean, bazkaria egingo dute urtero bezala. Aurten, Alegiako Tolosaldea jatetxean (gasolindegiko jatetxean) bilduko dira.

Bazkarirako txartelak salgai

aurkitzen dira Alegian: Letamendia kafean, Landa okindegian, Erosle dendan eta Maritxu janaridendan, hain zuzen ere. Txartelen salneurria 30 eurokoa da.

Txartelak erosteko azken eguna datorren asteazkena, urriaren 13a, izango da. Bazkaltzera joateko eta berriro herrira bueltatzeko auto zerbitzua ere jarriko dute; beraz, autorik ez dutenek 14:00etan Alegiako plazara joan behar-ko dute.

UGARTE ▶ JAIAK

Egitarau zabala izango da Errosarioko amaren jaietan

Bihar hasi eta igandera bitarte izango dira; iazko arrakasta ikusita, Traketsen apustuak errepikatuko dituzte etzi

OLAIA ESKITXABEL

Bihar hasi eta igandera, urriaren 10era, bitarte luzatuko dira Ugarteko Errosarioko amaren jaiak.

Bihar, Ugarten ohikoak diren ekitaldiak izango dira: herri afaria, toka txapelketa... Saldutako txartelak zenbatuta, afarian, aurreko urteetan baino jende gehiago bilduko dela azaldu dute antolatzaileek.

Iazko arrakasta ikusita, etzi Traketsen apustuak errepikatzea erabaki dute. Proba aldrebesak izango dira aurtengoak ere; astoaren gainean zinta karrera egiteko asmoa zabaldu denaren zurrumurrua ere badabil Ugarten. Azken finean, «helduentzako haur jolasak» izango direla adierazi dute.

Gonbidatu ezagunak

Jaietako azken egunean, bi binakako pilota partida jokatuko dute auzoko gaztetxoek. Arratsaldean ere, kirolerako tarte hartuko dute; harrijaso-

tzaileen eta aizkolarien saioak izango dira herriko pilotalekuan. Goenatxo eta Haimar Irigoien ariko dira harria jasotzen, eta, Arrospide eta Peña-garikano aizkoran.

Kirolari ezagunak, beraz, jaietara gonbidatu dituztenak. Musikiariak ere ez dira atzera geratzen. Etzi, Epelde eta Larrañaga trikitilarien saioa izan-

go da eta igandean, berriz, Laja eta Landakanda ariko dira jendea dantza egitera ateratzeko saiakeran.

Ugarteko jaietaz hitz egin eta *Ingurutxo*a ez aipatzea pekatu litzateke. Jaietako azken egunean, igandean alegia, eta ohiturari jarraituz, bi alditan dantzatuko dute: bazkaldu aurretik eta herri kirolen ondoren.

EGITARAU ▶

BIHAR

- 20:30. Kanpaia jotzea eta suziriak.
- 21:00. Herri afaria.
- 22:30. Xabierrekin erromeria.

ETZI

- 17:00. VI. Mus Txapelketa.
- 18:00. Poxpolo eta Mokolo pailazoak.
- 21:00. Zahagi ardoa.
- 22:30. Epelde eta Larrañaga.
- Atsedendian. Traketsen apustuak.

URRIAREN 10 (IGANDEA)

- 11:30. Meza nagusia.
- Ondoren. Gazteboen pilota partidak. Amaitzean, hamaietakoak. Jarraian, *Ingurutxo*a dantzatuko dute ugartearek.
- Bazkal aurretik. Laja eta Landakanda trikitilariak.
- 18:00. Herri kirolak. Ondoren, Ingurutxo.
- 20:00. Sagardo dastaketa.
- Ondoren. Laja eta Landakanda trikitilarien saioarekin amaituko dira jaiak.

ALTZO ▶ GIZARTEA

Liburutegian egokitu dute KZgunea

Urrian zehar, arratsaldez izango dira ikastaroak; izen-ematea irekita dago

O. ESKITXABEL

Altzoko KZgunea irailaren 20ean jarri zen martxan; irailen zehar, goizez eskaini ziren ikastaroak. Urrian, berriz, arratsaldez izango dira. Izena emateko aukera badago baina «lehenbailehen egitea» gomendatu dute udaletxetik.

Liburutegia irekita egongo da arratsaldez eta ikastarorik ez dagoen bitartean. Interneten nabigatzeko aukera izango dute altzotarrek. Goizez ere, udaletxea irekita dagoen

egunetan nabigatzeko aukera izango da.

Aerobik, pilotalekuan

Altzoko emakumeak aerobik egitera animatu dira; hogeita hamabost lagunek eman dute izena, eta gizezkorik ez da tartean. Altzoko pilotalekuan egingo dute aerobik; asteazkenero, 19:30etik 20:30era bilduko dira bertan, musikaren laguntzaz izerdi pixka bat botatzeko asmoz. Oraindik izena emateko epea zabalik dago.

IBARRA ▶ KIROLAK



Asteartean hasi ziren Lasarte-Orian mutilen taldeak Gipuzkoako txapelketarekin. INIGO TERRADILLOS

Denbora-pasa baino gehiago da dardo joko hainbatentzat

Karlatz garagardotegiko taldeek Europan jokatu dute eta aurtengo Espainiako Ligarako sailkatze lanetan hasi dira

INIGO TERRADILLOS

Taberna eta garagardotegi askotan topa dezakegu dardo makina, eta zerbait hartzen dugun bitartean lagunartean partidatxo bat egiteko aukera izaten da.

Honen adibide da Ibarroko Karlatz garagardotegia. Dardo makina jartzeko proposamena egin zioten Aitor Ezkerra garagardotegiko jabea eta honek onartu egin zuen. Donostiatik etorri ziren pasa den urteko udan makina jartzera eta jende asko hasi zen segituan dardotara jolasten afizio handia zegoela erakutsiz.

Makinez arduratzen diren donostiarrek Liga bat antolatu zuten azaldu zuten eta garagardotegiko jabea ideia gustatu eta ohiko jokalariei honen berri eman zien.

Erantzun ona jaso zuen urte honetako urtarilean, lehen aldiz, parte hartu zuten Liga honek eta dardo makinaren antolatzaren laguntza eta partaide-tza ere izan zuen. Donostiar hauek maila handia zutela frogatu zuten eta honek jendea gehiago animatzea eragin zuen.

Lau talde osatu zituzten; hi-



Europa eta Espainiako Dardo Txapelketako kartelak. INIGO TERRADILLOS

ruk maila apala zuten eta beste, berriz, jokalaria hobereenez osatua zegoen.

Europako Txapelketa

Liga irabaztea lortu zuen talde honek eta ondorioz, urriaren 28tik azaroaren 1a bitarte Herbeheretan izango den Europako Dardo Txapelketan jokatzeko txartela eskuratu zuten.

Alberto Bizente da makina hauen eta Ligak antolatzen diharduenetako bat. Berak Espainiako txapeldun titulua du

biketoka eta bere bitartez, edo berak lehengo urteko Ligako talde onena gomendatu ondoren joango dira 6 taldekide ibartarrak, hau da 4 jokalaria eta bi ordeko, Herbehereak.

«Dena oso azkar gertatu da eta konturatzerako Europako Txapelketan pentsatzen egon behar dira orain Ibarroko jokalariek», dio taldeen osaketaz eta antolaketaz ere arduratzen den Aitor Ezkerrak.

Irabaztea agian oso urrun ikusiko badute ere, ezer ez dago erabakita, eta kasu ho-

EUROPAKO DARDO TXAPELKETA ▶

6 ibartar dira Herbeheretan Europako Txapelketan jokatu dutenak urriaren 29tik azaroaren 1a bitarte.

PARTE-HARTZAILEAK

- ▶ Koldo Llorente.
- ▶ Haritz Martinez.
- ▶ Jose Luis Rajado.
- ▶ Ibai Saez.
- ▶ Imanol Zubillaga.
- ▶ Txomin Aparicio.

urretan, 15.000 euroko saria lortuko lukete, Chicagon egingo den Munduko Txapelketarako txartelekin batera.

Denboraldi berria

Aurtengo denboraldiari begira, sei talde osatu dituzte Ibarroko Karlatz garagardotegikoek. Hauetatik bost mutilak osatzen dute eta geratzen den taldea neskek osatua da.

Pasa den igandean hasi ziren neskek. Beasainen jokatu zuten lehendabizikoa eta galdu egin zuten. Oraindik, ordea partida asko geratzen dira eta ahalik eta puntu gehien lortzea izango dute helburua.

Asteartean ekin zioten mutilak dardo txapelketari Lasarte-Orian eta galdu egin zuten, 9-3ko emaitzarekin.

Mutilak bost talde osatu badituzte ere guztiak ez daude maila berean; jokalaria onenek osatzen duten taldeak bigarren mailan jokatu du, eta beste lau taldeek hirugarren mailan.

Ligaxka ezberdinak antolatu dira Gipuzkoan eta hemen irabazle suertatzen den taldeak Gironan jokatu du abenduaren 4tik 7ra Espainiako txapel-dun titulua lortzeko, eta hau lortzen duenak hurrengo urteko Europako Txapelketara joan ahaliko du.

Giro polita jokalarien artean

Dardo jokoa aritzen diren artean oso giro polita sortzen dela dio Aitor Ezkerrak. «Denbora pasa bezala hasten zara eta konturatzerako gustatu eta serioago hartzen hasten zara» gehitzen du Ezkerrak eta «taldeak osatu eta jendea ezagutu eta dibertitzeko aukera eskaintzen du, baita beste herrietako jokalariekin ere».

Tabernetan aurki ditzakegun gainerako jokoen antzerakoa badirudi ere, afizio berezia sortzen duen joko dugu dar-doena, hemen profesional mailan gehiegi ezagutzen ez bada ere, beste lurraldeetan urteeta-ko esperientzia dute.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi Itapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa M^o.I., Kale Nagusia

7 (Tolosa). 943 67 06 48.

Erbiti O., Lizarraga, 7, (Leitza).

112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ESKAERA

Gasteizera joateko.

Astelehenetik ostiralera, eguerditan, Tolosatik Gasteizera autoz joateko norbait behar du. Gastuak erdibana. Telefonoa: 600 05 42 27.

LEITZA ▶

Mikel Niebek Sallurtregi saria eskuratu du

Mikel Niebe Leitzako txirrindulari gazteak II. Sallurtregi Saria eskuratu zuen igandean Bilbon burutu zuten frogan. 87,5 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten eta oso lehiatua suertatu zen karreran, helmugarako bost bat kilometro falta zirela, gazte honek taldetik ihes egin zuen, azkenean taldeari 11 segundotako aldea ateraz eta 2:14:45 -eko denbora eginenez. Mikel Niebe Caja Rural taldean ari da eta honetxek lortu omen du talde honentzat lehendabiziko aldiz sari honetako garaipena. Aipatu beharrekoa da, sariketa hau, Lehendakari Txapelketako frogatik dela.

INFORMATIKA ▶

Informatikako ikastaroen hurrengo txanda

Aste honetan hasi da aurreneko txanda, eta dagoeneko hurrengorako izena emateko epea irekita dago, Astiz liburudendan zehazki. Amazabal Institutuko guraso batzuk antolatzen dituzten ikastaro hauen bigarrena, azaroaren 29an hasiko da. Ordaindu beharko diren 90 euroren truke, 30 ordutan, astelehen eta asteazkenetan izanen diren saioetan, Internet-a, ko-ree elektronikoa, Outlook-a, Excel-a... landuko dituzte. Izena ematerakoan, lehentasuna, ikasle-guraso izanik, informatikako hastapeneko ikastaroetan parte hartutakoek izanen omen dute.

LEITZA ▶

Jaunarena ez da Nafarroako finalean izanen

Aste guztian gaixo egon ondoren Etxarri-Aranatzera joatea erabaki zuen azkenik, finalerako txartela eskuratzeko ahalaeginak egitera, baina ezin izan zuten lortu, eta esku hutsik itzuli zen etxera leitzarra.

LEITZA ▶ KIROLA



Neguan ikastaroen eskaintza zabala egiten du kiroldegia, adin guztietako jendearentzat. JAIONE ASTIBIA

Leitzako kiroldegia ikastaroak egiteko eskaintza oparoa du

Udako nagikeriak utzi eta neguari aurre eginez, gorputzari astinaldia emateko aukera esku artean jarri du, berriz ere

JAIONE ASTIBIA

Udako aisialdi garaia bukatu eta ikasturteari ekiterakoan, askotan asmo sendoak hartu ohi dira, halako ikasi beharra, holako egin beharra... Horien artean maiz entzuten dena «kirola egiten hasiko naiz» esaldia izaten da. Eta hara, azken aiatatu den horixe betetzen hasteko bidea ere eskura etorri!

Leitzako kiroldegian kirol desberdinak praktikatzeko ikastaroak eskaini dituzte. Sei desberdin; bakoitzaren gustu edo beharren arabera gorputzari astinaldi handixeagoak edo txixixeagoak emateko modukoak denak: aerobikarekin mugimendua eta errealdia, karatearekin kontzentrazioa eta indarraren kontrola, ohiko kirolekin jostatzen ikastea, gimnastikarekin biguintasuna eta dantza...

Baina ohiko bizitzak ematen duen urduritasuna eta eragiten duen estresari aurre egiteko

KIROL IKASTAROAK ▶ KIROLDEGIAN

Izena emateko epea zabalik dago Leitzako kiroldegian eta taldeak osatu ahala hasi egingen dira.

AEROBIK/STEP-A**Helduak.**

▶ Astearte eta osteguna.

10:00 - 11:00.

▶ Astelehen eta asteazkena.

19:30 - 20:30.

▶ Astelehen eta asteazkena.

20:30 - 21:30.

Gazteak.

▶ Asteazken eta ostirala.

18:30 - 19:30 eta 17:30 -

18:30, hurrenez hurren.

STEP-A**Helduak.**

▶ Astearte eta osteguna.

19:00 - 20:00.

▶ Astearte eta osteguna.

20:00 - 21:00.



Ikasitako erakusten. J. A.

MANTENTZE GIMNASTIKA**Helduak.**

▶ Astearte eta osteguna.

11:00 - 12:00.

▶ Astearte eta osteguna.

17:00 - 18:00.

KARATEA

Gazte eta helduak.

▶ Astelehena eta ostirala.

aukera ere bada, yoga egiten ikasi eta txakrak irekiz, energia txarrak kanporatuz eta lasaitasuna bilatzen saiatuz. Osasuntsua omen da eta ekin beharko!

Kiroldegiko arduradunek adierazi dutenez, aurten ordu-tegi aldetik eta eskaintza zabalgooa da, parte-hartzaileek egindako eskakizunei jarraiki, zenbaitetan aukerak bikoiztu egin dituztelako, mantentze gimnastika eta yoga kasu. Eta haurrentzako gimnastika ikastaroa jarri dute ere, besteak beste.

Edozein moduz, zahar eta gazte, heldu nahiz ume, aukerak hortxe daude eta bere horietan izena emateko epeak ere zabalik daude, aste honetan guztian. HITZARI adierazi diotenez, ikastaroetako taldeak osatzeko gutxienez hamar lagunekoak izan behar dira, hortik gorako mugarik gabe, aerobik-stip-ekoan izan ezik. Azken hau egiteko beharrezko diren oholak haina, hemeretzi ikaslek parte hartu dezaketelarik.

Ikastaroen balioari dagokienez, berriz, ordu beteko saioak direnak adinaren arabera ordaindu beharko omen dira, hiruhilabeteka: 36, 24 eta 18 euro, heldu, gazte eta umeek, hurrenez hurren. Ordu eta erdiko saioek 40 euroko ordainsaria dute. Alde guztietara, bazkideek erdia ordainduko omen dute.

18:30 - 19:30 eta 18:30 - 19:30, hurrenez hurren.

Haurrak.

▶ Astearte eta ostirala.

18:00 - 19:00 eta 18:30 -

19:30, hurrenez hurren.

YOGA**Helduak.**

▶ Astelehen eta asteazkena.

11:00 - 12:30.

▶ Astelehen eta asteazkena.

15:30 - 17:00.

MULTIKIROLA**Haurrak.**

▶ Ostirala. 16:45 - 18:15 edo

18:15 - 19:45.

GIMNASTIKA**Haurrak.**

▶ Astelehen eta asteazkena.

17:30 - 18:30.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

AGENDA ▶

AURKITUAKOAK

Ibarra. Urrezko pultsera bat domina batekin aurkitu zuten irailaren 25ean. 943 67 37 27.

DEIALDIAK

Alegia. Autoestimaren garrantziak mintzatu da Xabier Arrazola Jubilatuen elkartearen 16:30ean.

Berastegi. Dantza eta musikaren hastapenez hitz egingo du Daniel Ugaldek Gaztainondo jubilatuen elkartearen 17:30ean.

Tolosa. *Ibilbide 181.a* dokumentala eskainiko dute gaur eta bihar, 19:30ean, Kultur Etxean. Palestinaren Lagunen elkarteak antolatuta du ekimena.

Tolosa. Harizpe jubilatuen elkarteak Gabonetako loteria eta saskirako zenbakiak ditu salgai astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:30etik 12:30era.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Txaro Medranoren koadroak Sorron denda.

Tolosa. Olivia Sanchezen margokanak Lanbroa.

Tolosa. Ricardoren zapatak Oskarbi tabernan (lurre).

Tolosa. Ana Gonzalez Atorrasagastiren lore lehorrak Saikin tabernan.

IKASTAROAK

Ikaztegieta. Aerobik ikastaroan izena emateko aukera dute herritarrek egunotan: udalebian (943 65 33 29) edo kiroldegian (943 65 20 46).

ZINE-KLUBA

Tolosa. *Cold Mountain* (Anthony Minguella) 21:30ean Leidor zineman.

Egoitza berria adinekoentzat

ANOETA ▶ Egun batzuk badaramatza zabalik Alkartasuna jubilatuen elkarte
 egoitza berriak; laster izango da inaugurazio ofiziala



Adineko anoetar batzuk San Juan kalean kokatuta dagoen egoitza berrian; jolaserako eta solaserako toki egokia daukate. IMANOL GARCIA

JOXEMI SAIZAR

Anoetako Alkartasuna jubilatuen elkarteak egoitza berria du San Juan kalean, duela gutxi eraiki berri diren etxe batzuen azpialdean. Egoitza lehengo baino handiagoa eta egokiagoa da, sarbide erosoagoa duelako eta herriaren erdialdean kokatuta dagoelako. Orain arteko egoitza txikiagoa zen eta alde batek aldapa handia zuen sartzeko. Gainera herriko plazatik urrutiago zegoen.

Alkartasuna jubilatuen elkarteak hamahiru urte eta 163 bazkide ditu. Lehendakaria Manuel Odriozola da. Orain arte izan duten egoitza baino lehen garai bateko udaletxearen azpialdean izan zuten egoitza, herriko plazan bertan. Anoetako Udalak egoitza berria utzi dio herriko Alkartasuna jubilatuen elkarteari. Egoitza berriak 222 metro karratu ditu, hainbat gela eta bulego-tan banatuta. Gainera datorren urtetik aurrera taberna-jate-txea ere izango du. Taberna-ja-

tetxe horren arduraduna bilatzeko Udalak lehiaketa publiko zabalduko du laster. «Taberna-jate-txeko arduradunak izan arte bazkideak arduratuko dira tabernan eta egoitzaren garbiketaz. Hori izan da Udalak egin digun eskaera eta laguntza boluntario hori eskatu diet Alkartasuna elkarte bazkideei lehengo astean egindako batzarrean», adierazi zion HITZARI Manuel Odriozola lehendakariak. Orain arte, Udal arduratzen zen egoitzaren garbiketaz eta

taberna txikiaren martxa bazkide batzuk egiten zuten txandaka, boluntarioki. Hemendik egun gutxitara —seguraski datorren asteko ostiralean, urriak 15, elkarte arduradunek jakinarazi dutenez— egingo da Alkartasunaren egoitzaren inaugurazio ofiziala udal agintariak, dantzariak, apaiza, elkarte arduradunak... bertan bilduta. Aurrerago, azaroaren 27an, urteroko bazkaria egingo dute. Kasu honetan Ikastolan izango da.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Jon Gomez Uranga (Tolosa).
 Gaur 12 urte. Zorionak guraso eta familia guztiaren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** • Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!